

**<< Eskulangintzako Industriak >>**

**Blanka Gómez de Segura**

**Área 3- Industrias Culturales**

**3. Arloa: Kultura Industriak**

**(Euskarazko bertsioa- Versión en euskera)**

**Febrero, 2003ko otsaila**

## KULTURAREN EUSKAL PLANA

### ESKULANGINTZAKO INDUSTRIEI BURUZKO TXOSTENA

Egilea: Blanka Gómez de Segura. Eskulangile zeramikaria. Ollerietako Euskal Buztingintza Museo-zentroko arduraduna (Araba).

#### SARRERA

***Gaur egun ez da aintzat hartzen edo gutxi balioesten da eskuz egindako lana. ESKUZKOAREN GAINETIK BURU-LANAREN kultura transmititu da.***

Lan hau elkarrekin loturarik ez duten hausnarketa batzuekin hasi nahi dut, eta horiek azalduko digute ondorengo eztabaidaren tonua.

Eskulangintzari eta eskulangileei buruz, **haien produktuan presente** egoten diren eta nolabait esanda produktua **gizatiartu** egiten duten pertsoneri buruz, hitz egiten dugunez, egokia irudituz zait batean eta bestean aurkitu ditudan kontu batzuk aipatzea.

*-Anaxagoras filosofo greziarrak esaten zuenez, “gizakiak eskuak dituelako pentsatzen du”.*

*-Iraganeko eskulangintzaren eskutik iristen gara nekazaritzara. Hura aztertuta lortzen da bizitzaren aurrean gaur egungoak ez bezalako jokaera zituzten kulturetara gerturatzea .*

*-Herri-artearen kontzeptua ez zen XVIII. mendera arte agertu. Lehen gauza arruntekin lotzen zen.*

*-Eskulangileak taldeak behar duena eraldatzen du.*

*-XIX. mendearen erdialdera, nekazari-bizimoduaren gainbehera zela eta, “herriak bereak dituen altxorak” kontserbatzeko beharra sortu zen.*

*-Nekazaritzako munduak ez zuen “berritasuna” bilatzen. Formak eta gaiak behin eta berriro errepikatzen zituen, eta bizimodua transformatzen zenean bakarrik aldatzen ziren.*

*-Jakina da, herriak eguneroko bizitzan erabiltzen dituen objektuak museo batean daudenean, horiek ikusten dituztenak ez daudela dagoeneko soziologikoki objektuak ekoitzi zituzten pertsonen maila berean. Objektu horiek gaur ikusten dituenak baloratu egiten du herriak erabiltzen zituen formen edertasuna, baina ez haiekin bizi izan zenak.*

*-Eskulangilea **kultura-eragilea** da, beste garai, erritmo, izateko era eta sentitzeko era bateko balioak transmititzen dituena.*

Eskulangintzaren sektoreak arazo hau du: kulturaren balioak ere merkatuaren legearen menpe dauden mundu honetan, kultura-ondare honek irautea lortuko du, baldin eta ekoizpenari, merkataritza-kanalei eta salmentei dagokienez enpresa gisa behar bezala antolatzeko gaitasuna izatea erdiesten badu.

Eskulangile batzuk ez dira enpresak legearen aurrean; izan ere, lan horretaz gain, ordaindutako beste jarduera bat dute edo erretiratuta daude.

Beste kasu batzuetan, Administrazioak edozein sektoreko beste edozein industria bezala tratatzen ditu eskulangileak eta ez ditu kontuan hartzen eskulangintzaren sektorean dauden ezaugarri bereizleak.

Eskulangintza ez da ekonomia- eta kultura-jarduera eta garrantzitsua litzateke gaur egun dugunaren DEFINIZIOA bateratzea.

Kataluniako Generalitateak eskulangintza-jarduera erregulatzeko legean eskulangintzari buruz ematen duen definizioa aipatu nahi dut.

3. artikulua-Eskulangintzaren kontzeptua. “Eskulantzat hartzen da, xedapen honen eragin guztietarako, Dekretu honen garapenaren Aginduaren 1. eranskinean aipatzen diren ondasun artistikoen edo kontsumoko ondasunen ekoizpena, transformazioa edo konponketa, bai eta zerbitzuak ematea ere, betiere, jarduera horietan esku-hartze pertsonala eta jakintza teknikoa funtsezko faktoreak diren prozesuen bidez egiten direnean eta azken produktua indibidualizatua denean, alegia, erabat mekanizatua ez den edo serie handitan egin ez den industria-ekoizpen batean sar ezin daitekeenean. Ez da eskulantzat hartuko lehenago aipatutako eranskinean dauden eskulangintza-ofizioen Katalogoan sartutako ofizioetako prozesu guztiak erabiltzen ez dituen jarduera.” (252/2000 dekretua)

Aragoiko eskulangintzaren 1/1989 Legearen definizioa ere aipatuko dut: “2. artikulua-Eskulangintzaren kontzeptua. Lege honen xedeetarako, eskulangintzaren barnean sartuko dira balio artistikoa edo herrikoa duten ondasunak sortzea, ekoiztea, zaharberritzea edo konpontzea, bai eta zerbitzu eta ondareak eskaintzea ere, betiere, garatutako jarduera batez ere eskuz egindako prozesuaren bidez egin bada eta azken produktua banako batek egindakoa eta industrialak ez bezalakoa bada.”

## **ESKULANGINTZAREN GARRANTZI EKONOMIKOARI ETA SOZIALARI BURUZ.**

Gaur egun, etengabe erabiltzen ditugu “globalizazioa” eta “teknologia berriak” hitzak. Gure garaiaren errealitatea islatzen duten eta berehala azkartasunarekin, aldaketekin, merkataritza elektronikoarekin, denbora errealeko komunikazioarekin, bidaiekin eta dinamismoarekin lotzen ditugun hitz magikoak dira.

Bestetik, beste errealitate batzuk ez daude modan: lan zehatza, gauzak gure neurrira egitea, gogobeteko gaituzten moduan, lehengai baten diseinu patxadatsua objektu eder bilakatu arte, erabilgarria izan ala ez, kontsumoko produktu izan ala ez; Ama Naturaren erritmoetara egokitzen duen errealitatea kontenplaztea, paisaia eta pertsona batzuekin identifikatzea, eta, azkenik, bizitza tradizionala, mendeetako erabilerari eta ohiturei atxikia, herrien kultura osatzen duen tradizioari lotua. Nekazaritzaren esparrukoak –mundu harmonikoa eta galtzen ari dena– diren beste errealitate horien atzean funtsezko irudi bat dago: eskulangile tradizionalarena.

Eskulangileak, bere eskuz eta eguneroko lanez baliatuz, itxuraz erabilerarik ez duten eta forma jakinik ez duten materialekin objektuak transformatzen ditu, bai lanerako edo pertsonen eguneroko bizitzarako tresna gisa erabiltzeko, bai apaingarri gisa erabiltzeko, gizakiak basatiak gaintzen dituela adierazten duen honen ikur gisa: ederra baina ez nahitaez erabilgarria denak ematen duen gozamina. Horregatik, eskulangileak aspalditik elkartu izan ditu erabilgarritasuna eta edertasuna.

Artea herrien bizitzan sartzen da eta tradizioak osatzen ditu; horregatik, ez da harrizkoa mendeetan lotura sakona egotea lehen sektoreko lan jakin batzuen (nekazaritza, arrantza, abeltzaintza) eta eskulangintzaren artean; izan ere, lan jakin batzuetan ezinbestekoa zen eskulangileak tresnak egitea (zumezko otarreak, orgen gurpilak, amuak, sareak eta tresnak eta ganaduaren uztarria edo, besterik gabe, kaikua). Zepo, aizkora eta beste hainbat eta hainbat lanabes, nekazaritzako eguneroko bizitzan behar zituztenak eta kasu askotan bildumagileek bilatzen dituzten objektu izatera pasatu direnak.

Belaunaldiz belaunaldi identifikatu da bizitza tradizionala eskulangintzarekin, eta badirudi logikoa dela pentsatzea eskulangileen ofizioek duten karga kultural hori defenditu eta zaindu egin behar dela Herri Arte deitzen dioten hori mendetan garatu zuen herri horren kulturaren zati gisa .

Eskulangilea, hala hartuta, herri-kulturaren eraikuntzaren oinarria da, beste adierazpen-mota batzuekin batera, hala nola musika, literatura...

Urteak daramatzagu ikusten nola ari diren betiko desagertzen eskulangintzako lan jakin batzuk, egiten zituzten produktuak erabiltzeko balioa galtzen ari direlako, baina, horrekin batera, desagertzeaz daude, orobat, eskulangilearen irudia eta irudi horrek balio sozial gisa ordezkatzeko duena, aiton-amonek gurasoei eta horiek seme-alabei pasatutako "jakintzaren" mezulari gisa. Izan ere, lehengo eskulangileekin harremana izan duenak badaki haien nortasuna ere artisaua dela sakontasun guztiarekin. Eta hori ere balioa da bere baitan, ongi egindako lanarenganako maitasun hori, behar duen adina denbora hartuta eta objektuarentzat funtsezkoak ez diren elementuak sartuz xarma emate hutsagatik, baretik ateratzen zaiolako. Eta haren lanarekiko interesa azaltzen duen edonorekin minutu batzuz hitz egiteko beti denbora duenaren nortasun hori. Eta hori ez da besterik gabe ikasten, hori eskulangintzako lanaren garapen mantsoan lantzen da, lan hori edozein dela ere, eta egunero dagokizun tokian jartzen zaitu.

Kontua ez da eskulangintza arrazoi erromantikoengatik defendatzea, etorkizuneko inolako ikuspeirik gabe, ez da helburu berririk gabeko eskulangintza defendatzea. Askotan ahaztu egiten da eskulangileak, eskuekin eraiki eta sortzeaz gain, beste sektore askok bezala ekoizpeneko jarraibideak aldatu egin behar izan dituela, eta tresnak eta teknologiak aldatu egin behar izan dituela; era berean, eskulangile dira ordenagailuz diseinatzen dutenak edo pigmentazio industrialekin beirateak egiten dituztenak edo soplete elektrikoekin forjatzen dutenak.

## **ESKULANGILEA KULTURAREN ERAIKITZAILEA. ESKULANGINTZA ETA HAREN PROIEKZIOA BESTE POLITIKA EKONOMIKO BATZUETAN.**

Ekonomiaren eta teknikaren aldetik, eskulangilearen jardueraren ezaugarrietako bat da lanaren banakotasuna, bere nortasuna duena ondasuna edo zerbitzua sortzeko garaian, industriako ekoizpenen serieko izaeraren aurrean.

Alabaina, eskulangintzako jarduera aztertzerakoan eta arautzerakoan, alderdi ekonomizista hutsaren aurrez aurre, etekinak lortzeari hainbestearainoko garrantzia eman beharrean –merkatu-ekonomietan gertatzen den bezala–, eskulangintzako enpresa modernizatzea bilatu beharko litzateke, teknologia berrietara egokitzea, lan horiek ematen dioten benetakotasuna eta balioak galdu gabe. Lehenago esan dugu eta berriro esango dugu eskulangilearen lanean elementu pertsonalak tartekatzen dituela, beste produktuekiko autonomia du, artistaren beraren elementu bereizleak sartzen ditu, eta, gainera, kasu askotan, eta batez ere "eskulangintza tradizionalaz" ari garenean, elementu etnografikoekin, folkloreakin eta ohiturekin lotzen da, eta, horrela, "herri-kultura" deitzen dugun horren zati bihurtzen da, gure herriaren ondare.

Horrez gain, eskulangintza beste jarduera ekonomiko moderno batzuen zati dela ere aipatuko dugu, eta "eskulangintza berria" esaten zaiona konfiguraturako dugu.

**ESKULANGINTZAREN JARDUERA EKONOMIKOA JARDUERARENGATIK BERARENGATIK GARRANTZITSUA IZATEAZ GAIN, BESTE JARDUERA ETA SEKTORE EKONOMIKO BATZUEKIN DUEN LOTURARENGATIK ERE BADA GARRANTZITSUA.**

## GURE ERREALITATEAREKIN ALDERATZEKO DATUAK

### ESKULANGINTZAREN DEFINIZIO EKONOMIKOA ETA ENPRESA-DEFINIZIOA. EUROPAKO KASUA

(Plataformaren azterketatik jaso, 130. atala, 1. puntua)

Badirudi Europan ez dagoela definizio zehatzik gai honi buruz. Europako Batzordeak Enpresa Txiki eta Ertainen definizioari buruz esaten du artisau-enpresak “nazio mailan definituko direla, haien espezialitatearen arabera”. Europako Batasuneko herrialdeetan eskulangilearen legezko definizio bat badago, eta tamainaren, esku-diruaren edo era juridikoaren inguruko irizpideak aipatzen ditu. Eskulangintzaren kontzeptuaren barruan jarduera ugari sar daitezke manufaktura-industriaren, eraikuntzaren eta hirugarren sektoreko merkatuaren baitan. Estatu kide batzuetan, ekonomiaren jardueraren zati handi samar bat eskulangintzaren barruan sartzen da. Beste batzuetan, berriz, ofizio tradizionalak eta artistikoak bakarrik sartzen dira eskulangintzaren barruan.

### 3.1. taula ERKIDEGOKO HERRIALDEEN BANAKETA, LEGEZKO DEFINIZIOAREN EDO ESKULANGINTZAREN GERTURATZE EKONOMIKOAREN ARABERA

#### Sektorea / dimentsioa Profesionala Artistikoa Zenbait Batere ez

Sector/dimensión	Profesional	Artístico	Varios	Ninguna
Criterio de tamaño de la empresa. Puede variar según el sector	Criterio del sector, independientemente de la dimensión de la empresa	Actividad exclusivamente artística (artes aplicadas, estudios artísticos, siempre de manera autónoma)	Definición oficial no jurídica, o incluida en la PYME, o concesión de diploma, o criterios de dimensión	Ninguna definición, ni legal, ni oficial
Francia	Austria	Irlanda	Bélgica	Finlandia
Italia	Alemania	Reino Unido	Dinamarca	Portugal
Holanda	Luxemburgo	España	Grecia	
			Suecia	

FUENTE: Confortigianato - Ufficio Studi su dati Comitato Economico e Sociale

**Belgikan**, esate baterako, pertsona fisikoak bakarrik izan daitezke eskulangileak. Han, eskulangintza hitzak erdeinuzko konnotazioak ditu, eta “huskeriaren” sinonimoa da. Oro har, artisau-enpresak ETEekin aldera daitezke, baita profesional liberalak ere; hala ere, Belgikako ETEetan ez dira aritzen 20 soldatapeko baino gehiago.

**Erresuma Batuan**, eskulangintza hitza ia folkloreakin sinonimoa da. Gaur egun eskulangintzari buruz aritzeko erabiltzen duten hitza *handycraft* edo *craft* da, eta, berez, objektu tradizionalak serie txikitik eskuz egitea adierazi nahi du. Eskulangintzako enpresa britainiarra *small business* edo enpresa txikitzat jotzen da.

**Alemaniak** eskulangintzako tradizio handia du. Alemaniako legeetan, antolakuntza juridiko eta ekonomikoan, eskulangintzaren inguruko atal oso bat dago. Eskulangintza ez da industriaren osagai gisa hartzen, baizik eta sektore autonomo gisa, industriarekiko eta merkataritzarekiko independente.

Sektore ekonomiko alemaniar guztietatik, eskulangintza (Handwerk) da dudarik gabe dibertsifikatuena. Eskulangintzako enpresek kontsumitzaile pribatuaren, industriaren, merkataritzaren, zerbitzu publikoen eta beste hainbaten ondasun- eta zerbitzu-beharrak asetzen dituzte. Beste herrialde batzuetan ez bezala, eskulangintzako enpresa ez da definitzen langile-kopuruaren arabera edo negozio-zifren bolumenaren arabera, baizik eta eskulangintzaren erregistroan jasotako 127 ofizio edo lanbideetako batean aritzeagatik.

127 ofizio horiek zazpi taldetan banatzen dira: eraikuntza; metala lantzea eta elektrizitatea; zura; jantziak, ehunak eta larrua; elikagaigintza; osasuna, gorputz-zainketa eta garbiketa; beira, papera eta zeramika. Berez, Alemaniako eskulangintzaren sektorearen ezaugarria instalatu aurretik egin beharreko kualifikazio baten derrigortasunean oinarritzen da.

### 3.2. taula ESKULANGINTZA-TRADIZIOA

PAÍSES CON ALTA TRADICIÓN ARTESANAL	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Alemania</li> <li>- Austria</li> <li>- Dinamarca</li> <li>- Francia</li> <li>- Italia</li> <li>- Luxemburgo</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- sector económicamente reconocido</li> <li>- sector estructurado mediante organismos representativos</li> </ul>
PAÍSES CON SECTOR ARTESANO EN AUGE	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bélgica</li> <li>- España</li> <li>- Portugal</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- no hay definición clara de artesanado</li> <li>- artesanado sinónimo de tradicional</li> </ul>
PAÍSES SIN CONSIDERACIÓN ARTESANA	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Reino Unido</li> <li>- Irlanda</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- artesanado sinónimo de folclore</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Finlandia</li> <li>- Suecia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- sin definición de artesanía</li> </ul>

FUENTE: Elaboración propia a partir de ROSSI, J-Y (1998): "L'artisanat en France et en Europe: quelle définition?", en *Problèmes économiques*, nº 2.568, pp.7-12

**Frantziako** eskulangintza hainbat sektoretan banatuta dago (industria, merkataritza, zerbitzuak eta eraikuntza). Enpresa bat eskulangintzako dela esaten da baldin eta Ofizioen Erregistroan inskribatuta badago. Nagusiki edo bigarren mailan, ekoizpeneko, transformazioko edo zerbitzu-prestazioko jardura batean aritu behar du (nekazaritza eta arrantza kanpo utzita).

Merkataritza eta eskulangintza garatzeari eta sustatzeari buruzko 1996ko uztailaren 5eko legearen arabera, "Ofizioen Katalogoan matrikulatuta egon behar dute 10 soldatapeko baino gutxiago dituzten eta, lan nagusi edo bigarren mailako lan gisa, dekretuz finkatutako zerrendan eskulangile gisa azaltzen den ekoizpeneko, transformazioko, konponketako eta zerbitzua emateko jardura profesional independente bat egiten duten pertsona fisiko eta juridikoek (apirilaren 2ko 98-247 Dekretua, eskulanaren kualifikazioari eta ofizioen katalogoari buruzkoa; dekretu horren eranskin batean, eskulangintza gisa hartzen diren jardueren zerrenda dago, bai eta dagokion Frantziako jardueren nomenklatura ere –NAF, Nomenclature d'Activité Française–).

Eskulangintzaren definizio juridikoak hiru irizpide aipatzen ditu:

- **tamaina:** berez, muga 10 soldatapekotan dago finkatuta, baina, "jarraitutasun-eskubidearen" bidez ("droit de suite" 1995eko abenduaren 14ko 95-1287 Dekretua), hamar soldatapeko baino gehiagorekin, kondizio batzuk beteta, Ofizioen Katalogoan matrikulaturik segitzeko aukera ematen zaie eskulangintzako enpresei (berez, benetako muga 20 soldatapekoa da).
- 
- **jarduerak:** artisau-enpresa guztiek Ofizioen Katalogoan inskribatuta egon behar dute, hau da, ministerioaren dekretu baten bidez araututako eskulangintza-jardueren sailkapenean jasotako jardueretako batean aritu behar dute. Jarduera horiek lau multzo handitan banatzen dira:
- 
- eraikuntza: igeltseroa, pintorea, arotza, lauza-jartzailea, argiketaria...
- zerbitzuak: ile-apainketa, estetizista, taxia, auto-konponketa, neurrira jarduten duen zapatagintza, joskintza, hortz-protesia...
- txikizkako elikagaigintza: okintza, gozogintza, urdaitegia, harakintza, izozkigintza...
- produkzioa: mekanikoa, ebanista, bitxigintza, aitzogintza...
- 
- **mais u artisauaren kualifikazioa:** eskulangintzako zenbait jarduerak kualifikazio profesionala behar dute (apirilaren 2ko 98-246 Dekretuan aipatzen dira modalitateak)

Ezaugarri ekonomikoei dagokionez, honako hau azpimarratu behar da:

- lanaren izaera independentea,
- eskuzko izaera,
- 'serie txikiko' izatearen kontzeptua,
- kualifikazioaren kontzeptua, artisau-nortasunaren funtsezko elementua (eskulangile terminoa enpresako nagusi kualifikaturentzat erabiliz beti).

**Italiako** eskulangilea arautzen duen legeak (L. 443/85) ondasun edo zerbitzuen produkzioaren jarduera artisau-enpresa gisa garatu nahi duen subjektu orok derrigor jarraitu behar dituen termino eta baldintzak zehazten ditu. Eskulangintza-sektorea tamainaren eta jardueraren irizpideek definitzen dute. Eskulangintzaren baldintzak hauek dira:

- artisau-enpresek pertsonen sozietate gisa (inbiduala edo familiarena) edo izen kolektiboko sozietate gisa eratuta egon behar dute, inoiz ez da sozietate mugatua edo kapitalen sozietatea izango;
- enpresaburuak enpresako prozesu produktiboan pertsonalki parte hartu behar du: bere ekarpen pertsonala ez da enpresaren kudeaketa orokorra soilik izango, baita enpresaren ziklo produktiboan parte hartzea ere;
- enpresak ezin du gehienezko soldatapeko kopuru finko bat gainditu, nahiz eta baldintza hori sektore ekonomikoaren arabera egon (garraioan 12 eta arte-lanetan 35, batez besteko muga 22 langilekoa izanik).
- 

Beraz, nekazaritzan, manufaktura-jardueran edo zerbitzuetan aritzen den enpresaburu oro, baldintza horiek betetzen baditu, eskulangile izango da, sektorea edozein dela ere. Enpresa bat artisau-enpresatzat hartzeko, probintzia bakoitzeko merkataritza-ganberek erabakitzen dute enpresa horrek beharrezko baldintzak betetzen dituen (kasu honetan elikagaigintzako ofizio txikizkariak merkataritza-enpresatzat hartzen dira eta ez artisau-enpresatzat).

### 3.2.1.2. Espainiaren kasua

Artisau-enpresatzat hartuko da, tamainaren irizpidea kontuan hartu gabe, ezaugarri hauek betetzen dituen enpresa oro:

- autonomia, forma juridikoa edozein dela ere,
- enpresako nagusiak bere lanbidearen eragiketa osoarekiko duen jarrera,
- eskuzko lanaren nagusitasuna, nahiz ondasunen produkzioan edo sortzean nahiz zerbitzuak eskaintzean.

Juridikoki eskulangintzat hartzen da “ondasunen produkzioa, transformazioa eta konponketa, bai zerbitzuak ematea ere, pertsonen esku-hartzeak garrantzi handia duen prozesuen bidez eta produkzio industrialera egokitzen ez den emaitza indibidualizatua lortuz, han produkzioa serie handietan erabat mekanizatua baitago”.

Definizio eta sailkapen hori ekainaren 18ko 1520/1982 errege-dekretuan zehazten da. Ondoren, eskulangintzako eskumenak autonomia-erkidegoetara transferitu ziren, 1978ko Espainiako konstituzioaren 130.1 artikulua araberak. Dena den, ezaugarri orokor horiek autonomiako araudi guztietan mantendu dira.

Beraz, eskulangintzaren definizioak hiru alderdi nagusiri egiten dio erreferentzia:

- -jarduera ekonomiko motari: ondasunen produkzioa, transformazioa eta konponketa eta zerbitzuak ematea
- -prozesuari: nagusiki eskuzkoa/pertsonala izan behar du
- -azken emaitzari: indibidualizatua izan behar du (hau da, industrialki seriean produzitu ezin dena)

Autonomia-erkidegoek (eta Euskal Herriko hiru foru-aldundiek) definizioan ezartzen dituzten desberdintasun nagusiak ez dira prozesuari edo azken emaitzari buruzkoak, eskulangintzat hartzen den jarduera ekonomiko motari buruzkoak baizik:

- Aragoik, Balear Uharteek, Kantabriak, Valentziak, Extremadurak, Galiziak, Madrilek, Murtziak, Gipuzkoak eta Errioxak ondasunen sortzea eskulangintzaren definizioan sartzen dute.
- Aragoik, Kanariar Uharteek, Kantabriak, Kataluniak, Galiziak, Madrilek, Bizkaiak eta Errioxak ondasun artistikoak konpontzea kontuan hartu behar dela zehazten dute.
- Asturiasek, Kanariar Uharteek, Kataluniak, Madrilek eta Bizkaiak elikagaiak eskulangintzaren definiziotik kentzen dituzte espresuki
- Arabako kasua apartekoa da, berak bakarrik uzten baitu kanpoan “industriako eta nekazaritzako kontsumo-ondasunen eta ondasun osagarrien eskulangintza eta zerbitzuen eskulangintza”



Ekainaren 18ko 1520/1982 errege-dekretuan, eskulangintzako jarduerak sailkatzen dira:

a) Eskulangintza artistikoa  
b) Industria eta nekazaritzako kontsumo-ondasunak eta ondasun osagarriak produzitzen dituen eskulangintza

c) Zerbitzuen eskulangintza

Autonomia-erkidegoetako araudietan argi eta garbi desagertu da "industriaren eta nekazaritzaren eskulangintza osagarria", eta hori esplizituki zehazten du Arabako araudiak. Horrez gain:

- Eskulangintza artistikoa terminoari sorkuntza-eskulangintza gehitu zaio autonomia-erkidego guztietan, Andaluzian (ez baitu araudi propiorik garatu), Gaztela-Mantxan, Madrilan, Murtzian, Nafarroan eta Bizkaian izan ezik.
- Izaera tradizionalako edo herrikoiko eskulangintzari buruzko beste atal bat sartu da Aragoian, Asturiasen, Balear Uharteetan, Kantabrian, Galizian, Araban, Gipuzkoan eta Errioxan
- Kontsumo-ondasunak produzitzen dituen eskulangintzan elikagaiak ezin direla sartu zehazten dute Asturiasen, Kanariar Uharteetan eta Katalunian.

Enpresa, industria edo artisau-tailerren definizioari dagokionez, artisau-unitatetzat unitate ekonomiko osoa hartzen da, eskulangintza indibiduala barne, eta Eskulangintzako Ofizioen Katalogoan agertzen den jarduera bat garatuz:

- nagusiki eskuzko izaera duen jarduera edo jarduera indibidualizatua garatzen duena, eta erreminta eta laguntzako makinak erabiliagatik izaera hori galtzen ez duena
- familiakoak ez diren langile finkoen kopurua hamar baino gehiago ez denean, apendizak kontuan hartu gabe (autonomia-erkidego hauetan izan ezik: Balear Uharteak, Gaztela-Mantxa, Valentzia, Extremadura, Madril, Murtzia eta Errioxa, eta Arabako Foru Aldundia, non dute langile-kopuruaren mugarik jartzen)

Dena den, 10 langileko muga hori gaindi daiteke gainerako baldintzak betetzen badira eta dagokion autonomia-erkidegoko Eskulangintza Batzordeak aurrez onartzen badu (horixe da Andaluzia, Kanariar Uharteak, Gaztela eta Leon, Katalunia, Galizia, Nafarroa, Gipuzkoa eta Bizkaiaren kasua).

1520/1985 errege-dekretuan zehaztutako bi baldintza horiei beste hauek gehitu zaizkie:

- egiten den jarduerak Eskulangintzako Ofizioen Katalogoan zehazturik egon behar du (Asturias, Kanariar Uharteak, Kantabria, Gaztela-Mantxa, Katalunia, Valentzia, Galizia, Madril, Nafarroa, Gipuzkoa)
- garatzen den jarduerak ezin du izan aldizkakoa, ezta osagarria ere (Asturias, Gaztela-Mantxa, Gaztela eta Leon, Katalunia, Valentzia, Extremadura, Madril, Murtzia, Bizkaia eta Errioxa)
- jabeak edo arduradunak maisu artisaua izan behar du (gutxienez maisu artisau bat tailerreko): Aragoi, Balear Uharteak, Kanariar Uharteak, Kantabria, Gaztela-Mantxa, Katalunia, Valentzia, Galizia, Madril eta Errioxa. Maisu artisaua izatearen baldintza hori Eskulangintza Batzordeak onartzen du eta gutun edo maisu artisauaren agiri baten bidez egiaztatzen da

### 3.3. taula ESKULANGINTZAREN EZAUGARRIAK AUTONOMIA-ERKIDEGOETAN

**Cuadro 3.3. CARACTERÍSTICAS ARTESANAS EN LAS COMUNIDADES AUTÓNOMAS**

	A	Ar	As	B	C	Ct	CM	CL	Cñ	CV	E	G	M	Mu	N	R	AI	Gu	Vi
Actividad artesana:																			
creación de bienes		x		x		x				x	x	x	x	x		x		x	
bienes artísticos		x			x	x			x			x	x			x			x
no alimentación			x		x				x				x						x
Tipo actv. artesana:																			
de creación		x	x	x	x	x		x	x	x	x	x				x	x	x	
popular		x	x	x		x						x				x	x	x	
no alimentación			x		x				x										
Tamaño :																			
menos 10 empleados	x	x	x		x	x		x	x			x				x		x	x
≤ 10 sin ampliación		x				x													

FUENTE: elaboración propia

Eskulangintzaren antolakuntza, erregulazioa eta sustapena jasotzen dituen autonomia-erkidegoetako araudiaren erreferentziak koadro honetan (3.4) agertzen dira:

### 3.4 taula. AUTONOMIA-ERKIDEGOETAKO ARAUDIA

Informe sobre la artesanía

**Cuadro 3.4. NORMATIVA DE LAS COMUNIDADES AUTÓNOMAS**

Comunidades Autónomas	LEY	DECRETO	Calificación artesanal	Comisión de Artesanía	Carta de Maestro Artesano	Registro de Actividades Artesanas	Repertorio de Actividades Artesanas	Fomento	Otros
Andalucía		152/82, de 18/06		D 175/89, de 18/7			O 22/07/68	O 18/11/99	
Aragón	1/89, de 24/02		O 06/07/90	D 169/97, de 7/10		O 09/07/90	O 21/04/99	O 03/02/97	D 24/91, 19/02 <sup>(1)</sup>
Asturias		88/94, de 05/12						R 31/01/96	
Baleares	4/85, de 03/05		O 13/03/86	D 68/85, de 01/08	O 12/12/85 O 22/01/88	O 13/03/86	O 09/12/85	O 22/12/99	D 20/03/1991 <sup>(2)</sup> D 81/88, 20/10 <sup>(3)</sup>
Canarias		599/85, de 20/12 150/94, de 21/07 <sup>(4)</sup>			O 21/05/99		O 04/10/99	O 12/05/97	
Cantabria	7/98, de 05/06							O 05/04/00	
Castilla-La Mancha		82/86, de 29/07	O 28/05/87	O 11/09/86	O 22/03/87 O 14/04/97		O 14/04/97 O 23/05/00	O 10/11/98	
Castilla y León		42/89, de 30/03		O 10/09/90			O 24/11/89		
Cataluña		D 252/00, de 24/07			O 25/07/00			O 02/01/95	
C. Valenciana	1/84, de 18/03			D 83/84, de 30/07			O 04/06/85	O 22/12/99	
Extremadura	3/94, de 26/05		O 18/12/94	O 05/02/93	D 149/94 de 27/12		O 04/02/93	O 07/07/00	
Galicia	1/92, de 11/03			D 94/92, de 11/04		O 09/07/92 D 145/93, de 24/6	O 12/07/92 O 05/05/97	O 01/ 08/99	
Madrid	21/98, de 30/11					O 4276/96 de 08/07	Anexo a la ley	O 658/00, 02/02	
Murcia	11/88, de 30/11	D 20/98, 23/04 <sup>(5)</sup>			O 14/01/99	O 01/02/99	O 15/12/98	R 23/03/93	O 15/12/98 <sup>(6)</sup>
Navarra		188/88, de 17/06					Anexo al decreto	OF 17/06/98	
País Vasco								OF 106/00, 02/06	OF 445/99 02/08
Álava									
Guipúzcoa		75/96, de 10/11			D 80/97 de 25/11	D 79/97 de 25/11	OF 213/97		D 41/98, de 21/03
Vizcaya						D 37/88 de 30/03 O 894/90 de 04/05	Anexo al D 37/88	DF 120/00, 26/09	
Rioja (La)	2/94, de 24/05			D 52/98, de 28/08				R 20/07/00	

<sup>(1)</sup> Constitución de la empresa "Comercial Aragonesa de Productos Artesanos S. A."; <sup>(2)</sup> Placa distintivo de empresa artesana; <sup>(3)</sup> Calidad artesanal; <sup>(4)</sup> Traspaso a cámbidos; <sup>(5)</sup> Ampliación de la ley; <sup>(6)</sup> Etiqueta autoadhesiva y librito dístico a utilizar en la denominación "Artesanía de la Región de Murcia"

FUENTE: Elaboración propia

### 3.2.2. Familia-enpresa

Familia-enpresatzat hartzen da alderdi hauek dituen enpresa-erakunde oro:

- jabetzaren dimentsioa: oro har, kapitalaren gehiengoa familiaren esku dago
- boterearen edo kontrolaren dimentsioa: jabe diren familiakoek dute, beraz, horiek dute enpresaren jabetza eta kudeaketarako ardura
- familia- eta enpresa-sistemaren elkargunea: familiaren funtzionamenduak eta kulturak enpresan eragina dute, eta alderantziz
- bilakaera eta hazkunderako bokazioa (familiako etorkizuneko belaunaldiei transmititzea)

Beste familia-negozio mota batzuek berezko zehaztapenak dituzte:

- familia-enpresa indibidualak, artisauak edo nekazaritzakoak: artisau-, merkataritza-, nekazaritza-, abeltzaintza- edo arrantza-negozio txikiak, familia bateko gizon-emakumeek hasitakoa eta ustiatutakoa, bizitzeko beharrak asetzeko helburu bakarra duena. Enpresa-mota hauek hazteko asmorik gabe sortzen dira, eta helburu nagusia ez da negozioa seme-alabentzako bizimodu ona izatea lortzea. Oinarrizko bizimodua lortzeko modua izatea bilatzen da negozioarekin, eta sortzaileen bizitza amaitutakoa eskuz alda daiteke edo, hala badagokio, seme-alabei pasa diezaiekete, negozioaren aktiboari eusteko arrazoi nagusia hori izan gabe.
- Familia-kapitaleko enpresak: enpresa horietan, kapital osoa edo zati garrantzitsu bat familiaren esku dago, baina kudeaketaz familiatik kanpoko langile-teknikariak arduratzen dira. Horrela, kudeaketaren eta kontrolaren lotutako dimentsioak banandu egiten dira.

### 3.2.3. Enpresa txiki eta ertaina

**European**, ezaugarri hauek dituzten enpresak definitzen dira enpresa txiki eta ertain (ETE) gisa: gutxienez 250 langile dituzten enpresak, urteko negozio-bolumena 40 milioi eurotik gorakoa edo urteko balantze orokorra 27 milioi eurotik gorakoa ez dutenak eta independentziaren irizpidea betetzen dutenak (enpresa independentetzat hartuko dira kapitalaren % 25 edo gehiago edo boto-eskubidea beste enpresa baten esku edo ETEren edo enpresa txikiaren -kasuaren arabera- definizioarekin bat ez datozen hainbat enpresaren esku ez dutenak).

«Enpresa txikiak» 50 langile baino gutxiago ditu, urteko negozio-bolumena ez da 7 milioi eurotik gorakoa edo urteko balantze orokorra ez da 5 milioi eurotik gorakoa eta independentziaren irizpidea betetzen du. Mikroenpresa, berriz, 10 langile baino gutxiago dituen enpresa da.

### **3.2.4. Lan autonomoa**

Juridikoki, Gizarte Segurantzaren xedeetarako, "bere konturako langilea edo langile autonomoa da jarduera bat sarritan pertsonalki eta zuzenean irabazi-asmoarekin egiten duena, lan-kontratuaren bidez baldintzatu gabe dagoena, nahiz eta beste pertsona batzuen ordainpeko zerbitzua erabili".

Nekazaritzan, langile autonomo izateko, baldintza hauek bete behar dira:

1) nekazaritza-ustiapen txikien titular izatea,

4 MÁÑEZ TESTOR, I. (2000): Continuidad y crecimiento de la Empresa Familiar, Generalitat Valenciana

5 1996ko apirilaren 3ko enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko BATZORDEAREN GOMENDIOA (96/280/EE)

2) nekazaritza-jarduera pertsonalki eta zuzenean egitea ustiaketa horietan.

Langileen Estatutuak soldatarik gabeko lantzat edo lan autonomotzat hartzen du lan-kontratuak baldintzatu gabeko ondasun eta zerbitzuen jarduera produktiboa. Jarduera hori enpresaburuak egiten du eta arriskuak bere gain hartzen ditu.

Horrela, juridikoki, lan autonomoa ezaugarri hauen bidez defini daiteke:

- beste batekiko mendekotasunik ez
- irabazi-asmoarekin egindako jarduera baten ohiko gauzatzea, zuzenean eta pertsonalki egina.

Kontzeptu ekonomikoak kontuan hartzen baditugu, berriz, hiru lan-azpitalde bereizten dira:

- soldatarik gabeko lana, bere ardurapean dagoen mendeko lanik gabe,
- gehienez bost langile dituzten enplegatzaileak, enpresa-asmoekin,
- Gizarte-ekonomiaren formulatan bildutako autonomoak, erakundearen tamaina ekonomikoa/enpresa-tamaina edozein dela ere.

## **3.3. Eskulangintzaren jatorria eta bere biziraupena ekonomia industrial lehiakorrean**

### **3.3.1. Gremioen sistema**

Europar, gremioen sistema Erdi Aroarekin lotzen da, garai hartan sortu baitzen industriaren adar guztietan ezarritako lanbide jakin bateko langileen antolakuntza-mota hau. Gremioen eta beste antolakuntza-mota batzuen arteko desberdintasuna hau da: gremioan lanbide bereko langile guztiak sartzen dira, laneko 'kategoria' kontuan hartu gabe, hau da, gremioa nagusia (maisua artisauak) eta, aldi berean, langile eta aprendizena da.

Gremioak hiru helburu nagusi zituen:

- a) Berdintasuna mantentzea, maisu artisauen artean behintzat. Horregatik, berrikuntza teknologikoak debekatu egin ziren, maisu batzuek beste batzuek baino gehiago edo kostu baxuagoekin produzi ez zezaten. Hori dela eta, teknikak alderdi hauek zehaztuz arautu ziren: erabil zitezkeen erreminta-motak, maisu bakoitzak izan zitzakeen aprendiz-eta ofizial-kopurua eta soldataren eta orduen maila.
- b) Lehengaiak eskuratzeko bidea ere kontrolaturik zegoen: gremioak eta herriak lehengaiak egiaztatzen zituzten eta maisuei saltzen zizkieten. Horrela, maisu aberatsenek ezin zituzten monopolizatu. Bestalde, maisu-taldearen zuzentasuna arriskuan ez ipintzeko, maisuek ezin zuten ofizial bezala lan egin beste maisu batzuentzat.
- c) gizartean zuen posizio ekonomikoa mantentzea. Horretarako, agindu zen lana denbora-ekonomiarik gabe egin behar zela, hau da, lana ez zen gremioko kideen artean banatzen haiek zuten espezialitate teknikoaren arabera. Gehiegizko konkurrentzia saihesteko ezarritako beste ekintza bat prezioak erregulatzea eta ondasunak ezezagunei saltzea debekatzeko izan zen. Gainera, ahal zen guztia egin zen gremioetako kide izatea derrigorrezkoa izan zedin.

Baldintza ekonomiko, sozial eta politikoei esker, jarduera horiek ezinbesteko bihurtu ziren; horrela, gremioek merkatu mugatu eta egonkor batentzat –eta ondorioz aurreikus zitekeena– produzitzen zuten, eta prezioak eta fabrikazio-metodoak kontrola zitezkeen. Era berean, produktuaren kalitatea bermatu behar zen.

Halaber, gremioek luxuzko ondasunak baino gehiago beharrezko ondasunak produzitzen zituzten nagusiki, eta horrek sistemaren egonkortasuna handitzen zuen, eskaera gutxi aldatzen baitzen.

Gremioen barruan, hiru kide-mota bereizten dira: maisuak, aprendizak eta ofizialak.

**Maisuak** establezimenduaren jabea zen (baina ez zuen ezinbestean bere mendekoek erabiltzen zituzten erreminten jabea izan behar) eta soldatapeko langileak izan zitzakeen. Teorikoki, maisua langilerik trebeena zen: 'maisulana' terminoa haren trebetasunaren omenez gelditu da. Gainera, maisu-postua ez zuen kapitala inbertituz edo izendapen bidez lortzen, baizik eta meritu eta antzinatasunaren bidez.

**Aprendiza** langile gaztea zen eta maisu jakin baten zerbitzura egon behar zuen hiru eta zazpi urte bitarteko epean. Maisu/aprendiz arteko harremanak eskubide eta betebeharrak zehatz batzuk ezartzen zizkien bi aldeei. Maisuaren betebeharrak nagusia aprendizari lanbidea erakustea zen, egunen batean ofizial edo maisu izan zedin. Gainera, maisuak, normalean, jatekoa eta ostatua eta beste zerbitzu batzuk ematen zizkion aprendizari. Batzuetan, ikasketak eta soldata txiki bat ere ematen zion.

Aprendiz-garaia amaitutakoan, **ofizial** izatea lortzen zuen. Beraz, ofiziala behar bezala prestatutako langilea zen, arrazoiren batengatik maisu izatea lortu ez zuena eta maisu batentzat soldata baten truke lanean aritzen zena. Batzuetan, ofiziala trebatu zuen maisuarentzat aldi baterako lan egitera beharturik zegoen, baina beste leku batzuetan, ofizialak maisu batetik bestera aldatu behar zuen esperientzia lortzeko. Hala ere, ofizialaren helburu nagusia maisuaren ondorengo izatea edo bere tailerra irekitzea zen.

Gremioen antolakuntza horrek, ordea, **mais**u **artisuaren** postua lortzea zaildu zuen, eta jaraunsten zen postu bihurtu zen. Horrez, gain, ofizialei maisu-postua lortzea hainbat modutan galarazten zitzairen: aprendiz-aldia luzatu egiten zen edo tarifa oso altuak eskatzen zitzaizkion edo bere gaitasuna ziurtatzeko maisulan garestia eta teknikoki zaila egiteko eskatzen zitzaion. Beraz, XVII. mendean ofizialak langile finkoak ziren ia leku guztietan.

Bestalde, zaila da gremioen sistemako lan-harremanak orokortzea, lanbide oso desberdinak hartzen baititu bere baitan, gaitasun teknologiko eta lanaren banaketa oso desberdinekin.

Dena den, azpimarra dezakegu gremioen sisteman lana produktu osoaren arabera banatzen zela, eta ez produkzio-prozesuaren etapa zehatzetan. Ondorioz, nahiko lanpostu-klase gutxi zeuden. Gainera, gremioak, nagusiki, eskulangintzako lanbideak ziren eta teknologia oso eskasa zuten, produkzio-sistema erreminten erabileran oinarritzen baitzen, eta ez makina handietan.

Bi alderdi horien ondorioz, gremioen lana ohikoa, estandarizatua edo mekanizatua zen. Horregatik, gremioetako lan-harreman sozialak gremioen antolakuntzaren egituraren eta balioetan oinarritzen ziren gehien bat, eta ez hainbeste produkzio-prozesuan.

### **3.3.2. Gremioen sistemaren gainbehera**

XVI. mendean, gremioak gainbehera zetozela erakusten zuten adierazgarriak agertzen hasi ziren. Hainbat faktorek bultzatu zuten sistema horren ahultzea:

- 1. Ofizialentzat gero eta zailagoa zenez maisu izatea lortzea, ofizial batzuk maisuen aurka jarri ziren. Borroka horrek udal-aginpideek gremioen arazoetan esku hartzea bultzatu zuen eta, aldi berean, haien autonomia eta boterearen ahultzea.**
- 2. Gremioek zuten indarrak eta produkzioaren arlo batzuetan zuten monopolioak gizarteko hainbat talde aurka jartzea ekarri zuen. Estatuak sarrera-kuotak murriztea behartu zuen eta gremioak auzitegien eskumenean ezarri zituen.**
- 3. Denboraren poderioz, maisu batzuk diru dezente irabaztea lortu zuten. Kasu batzuetan, kapital hori langile gehiago kontratatzeko edo gremioen sistematik kanpo irabazi-asmoko establezimendu berriak ezartzeko erabiltzen zuten. Beste kasu batzuetan, maisu aberatsek gremioen kontrol osoa lortu zuten eta beste kide batzuei boto-eskubidea kendu zien Batzordean, eta ezintasun politikoaren egoeran utzi zituzten. Horrela, maisuek teknikak, erremintak, produktuen kalitatea eta gremioen ohiko jarduerak kontrolatzea lortu zuten.**

4. Maisu batzuek kapitala pilatzean, eskulangileen gremio batzuk merkatar-gremio bihurtu ziren. Horrenbestez, aurkako bi prozesu sortu ziren eta biek gremioen sistema suntsitzea zekarten. Alde batetik, merkatar-gremioak eskulangileen gremioa xurgatu zuen eta azken horrek bere independentzia galdu zuen. Beste kasu batzuetan, gremioak beste gremio ahul eta txikiagoetan zatitu ziren, eta, ondorioz, ezin zuten indar-posizioan lehiatu merkatar ahaltsuekin.

5. Manufakturatutako ondasunen merkatua pixkana zabaltzen joan zen, batik bat, itsasoz haraindikoa, eta gremioak merkatar-espertzaileen mende geratzen hasi ziren. Azken horiek behar adina kapital zuten atzerriko merkatuen hornitzeak eskatzen zuen fabrikazio-prozesua finantzatzeko. Horrek tarte handia suposatzen zuen produkzioaren eta azken salmentaren artean. Produktu berriak fabrikatzeko lehengai garestiak behar izaten ziren sarritan eta horrek kostuak igotzea ekarri zuen. Gremioek ezin zien kostu horiei aurre egin eta beren postua aldatu egin zen, merkatar enpresaburu batentzako fabrikatzaile bihurtuz, merkatu batentzako fabrikatzaile izan beharrean.

### 3.4. Eskulangintzaren errealitate ekonomikoaren ingurukoak

#### 3.4.1. Artisan-enpresak Europan

3.1 taulan ikusten den bezala, Espainiako artisan-enpresek enpresen ehuneko osoarekiko duten zatia Europako Batasuneko batezbestekoa baino askoz ere txikiagoa da (Espainian % 0,69, Europan % 20,18). Espainiaren antzeko enpresa-bolumena duten herrialdeetan (Alemania, Frantzia edo Erresuma Batua) artisan-enpresen proportzioa asko aldatzen da: Europako Batasuneko baxuenetik hasi, Erresuma Batukoa (% 0,66) eta altueneraino, Frantziakoa (% 41,92).

### 3.1 taula. ESKULANGINTZA EUROPAKO BATASUNeko HERRIALDEETAN

**Tabla 3.1. EL ARTESANADO EN LOS PAÍSES DE LA UNIÓN EUROPEA**

PAÍSES (**)	NP empresas (excluyendo agricultura) (miles) (*)	NP empresas artesanas	% empresas artesanas/ total empresas	NP empleados (incl. agr.) (millones) (*)	Ocupados artesanía	% ocupados artesanía/ total ocupados	Tamaño medio empresa	Tamaño medio empresa artesana	X art./ X totales	VA art./ VA tot.
Bélgica <sup>1</sup>	396	5.011	1,27	2,95	-	-	7,4	-	-	-
Dinamarca <sup>2</sup>	163	39.067	23,97	1,41	197.137	13,96	8,7	5,0	6,0	-
Alemania <sup>3</sup>	2.420	623.100	25,75	24,13	5.138.000	21,29	10,0	8,2	2,0	9,6
Grecia <sup>4</sup>	1.038	133.000	12,81	1,95	287.000	14,72	1,9	2,2	-	3,0
España <sup>5</sup>	2.166	14.920	0,69	10,37	46.345	0,45	4,8	3,1	-	0,3
Francia <sup>1</sup>	1.956	820.000	41,92	14,40	2.063.000	14,33	7,4	2,5	3,0	5,1
Irlanda <sup>1</sup>	81	-	-	0,54	78.200	14,48	6,7	-	-	-
Italia <sup>1</sup>	3.243	1.325.878	40,88	13,46	3.108.470	23,04	4,2	2,3	18,3	12,0
Luxemburgo <sup>1</sup>	15	4.065	27,10	0,16	43.335	27,08	10,7	10,7	-	15,0
Holanda <sup>1</sup>	395	127.000	32,15	4,27	317.000	7,42	10,8	2,5	-	3,5
Austria <sup>1</sup>	188	41.829	22,25	2,16	294.322	13,63	11,5	7,0	2,8	5,6
Portugal <sup>1</sup>	626	32.734	5,23	2,95	-	-	4,7	-	-	-
Finlandia <sup>1</sup>	199	-	-	1,15	116.000	10,09	5,8	-	-	-
Suecia	341	-	-	2,24	-	-	6,6	-	-	-
Reino Unido <sup>1</sup>	2.549	16.802	0,66	18,85	-	-	7,4	-	-	-
<b>Europa 15</b>	<b>15.776</b>	<b>3.183.496</b>	<b>20,18</b>	<b>101,02</b>	<b>11.688.799</b>	<b>11,57</b>	<b>6,4</b>	<b>3,7</b>	<b>-</b>	<b>-</b>

(\*) El dato está referido al año 1992;

(\*\*) Para los datos estructurales del artesanado los años de referencia son: 1) 1992 2) 1993 3) 1994 4) 1995 5) 1988

FUENTE: CONFARTIGLIANATO (Eurostat, Istituto Tagliacarne, IIM-Osservatorio Europeo PMI, Statistiche Nazionali)

Aitzitik, Luxenburgo, Italia eta Alemania dira herrialderik azpimarragarrienak eskulangintza-sektoreko langile-kopuruari dagokionez, langileen ehuneko osoarekiko: % 27,08; % 23,04 eta % 21,29, hurrenez hurren.

Europako enpresen batez besteko tamaina sei langilekoa da eta artisau-enpresena ia erdia da (3,7 langile). Tamaina handiagoko artisau-enpresak (ertainak) Luxenburgo eta Alemanian daude (batez beste 10,7 eta 8,2 langile, hurrenez hurren). Espainian, berriz, artisau-enpresen batez bestekoa hiru langilekoa da, oro har, enpresen bost langileko batez bestekoarekin konparatuz.

Eskularen esportazioari buruz datu askorik ez dugun arren, ikus daiteke Italiako esportazioen ehuneko altua (% 18,3) eskulangintzari dagokiola. Ondorioz, eskulangintzaren sektoreak herrialde horretako balio erantsiaren % 12 hartzen du, ehunekorik altuenetakoa (Luxenburgoren atzetik, % 15). Aldiz, Espainiako artisau-enpresek balio erantsiari egiten dioten ekarpena Europako baxuena da (% 0,3).

Espainiako eskulangintza-sektorearen eta Europako herrialdekoen artean dagoen diferentziaren arrazoa, nagusiki, Espainiako estatistiketan elikagaien eta zerbitzuen eskulangintza ez sartzea da. Beste herrialde batzuetan, ordea, bai, adibidez, Frantzia. 2000. urtean, Establezimenduen Errolda Nazionalan (Espainiako Eskulangintza Fundazioa) jasotako datuen arabera, 15.280 establezimendu zegozkion eskulangintza artistikoari.

Dena den, aipatu fundazioaren kalkuluen arabera, elikagaien eskulangintzan aritzen diren establezimenduen kopurua 29.000 eta 30.000 bitartean dago, zerbitzuena, berriz, 385.000 eta 415.000 bitartean. Beraz, 450.000 bat establezimenduri buruz ari gara hitz egiten, eta ez erroldatutako 15.280 tailerretaz soilik. Datu horiek Europako kideen pare samarrean jartzen dute Espainia (Alemaniaren antzeko kopuruak lirateke, Frantziako, eta, batik bat, Italiako artisau-enpresen kopurua askoz ere altuagoa izan arren).

Zerbitzuen eskulangintzaren barruan, establezimendu-kopurua eskulangintza-mota hauen artean bana daiteke:

### 3.2 taula. ZERBITZUEN ESKULANGINTZAKO ESTABLEZIMENDU-KOPURUA

**Tabla 3.2. NÚMERO DE ESTABLECIMIENTOS DE LA ARTESANÍA DE SERVICIOS**

Actividades de reparación	De 125.000 a 130.000
Actividades de instalación y montaje	De 145.000 a 155.000
Actividades de mantenimiento	De 9.000 a 11.000
Actividades de servicios personales	De 37.000 a 43.000
Equipamiento personal	De 22.000 a 25.000
Servicios agrarios	De 13.000 a 15.000

FUENTE: Fundación Española Artesanía



### 3.4.1.1. Frantziaren kasua

Frantzia hartzen badugu adibidetzat, ikus daiteke Ofizioen Katalogo Informatikoan inskribatuta dauden enpresa gehienak (% 96) hiri gisa hartzen diren udalerrietan daudela (3.3 taula).

Gainera, aipatu katalogoan nagusiki eskulangintzan aritzen diren enpresak eta eskulangintza bigarren mailako jarduera gisa duten enpresak daude inskribaturik, nahiz eta gehienak nagusiki eskulangintzan jardun (% 84,95).

### 3.3. taula ENPRESA-KOPURUA (unitateak: milakotan) A 1-1-99.

	Francia metropolitana	Total Francia	%
Nº de inscripciones en el RIM* a título principal	672	700	100
Alimentación	78		11,61
Trabajo de metal	36		5,36
Textil, cuero y vestido	14		2,08
Madera y muebles	25		3,72
Otras fabricaciones	46		6,85
Construcción	270		40,18
Reparación, transporte, otros servicios	203		30,21
Inscripciones en el Repertorio de oficios a título secundario	119		
<b>Nº de inscripciones en el RIM*</b>	<b>791</b>	<b>820</b>	
<b>Total de empresas francesas</b>		<b>2.361</b>	
% artes. a tit. principal sobre el conjunto de empresas		<b>30%</b>	
% empresas artesanas sobre el conjunto de empresas		<b>35%</b>	

\* RIM: Répertoire Informatique Métiers (Repertorio Informativo de Oficios)  
FUENTE: INSEE- fichier SIRENE-RIM - Entreprises de l'Industrie, du Commerce et des Services y elaboración propia

Frantzia metropolitarran dauden artisau-enpresetatik (jarduera nagusia eskulangintza duten enpresak) gehienak zerbitzuen eskulangintzan dihardute, % 30,21 konpontzen, garraioan eta beste zerbitzu batzuetan aritzen diren enpresak baitira. Gainera, artisau-enpresen % 40,18 benetan eraikuntza-enpresak dira, beraz, artisau-enpresak guztira % 70,39 dira. Konparaketa gisa, eskulangintzaren definizio artistikoa soilik kontuan hartuta, Frantziako artisau-enpresen kopurua 121.000 ingurukoa lirateke, eta 820.000.

### 3.4 taula. BIZTANLERIA AKTIBOA (unitateak: milakotan), 1997

**Tabla 3.4. POBLACIÓN OCUPADA (unidades: miles), 1997**

<b>Empleo total en las empresas artesana en la Francia metropolitana</b>	<b>2.271</b>
Alimentación	332
Trabajo de metal	193
Textil, cuero y vestido	63
Madera y muebles	75
Otras fabricaciones	226
Construcción	830
Reparación, transporte, otros servicios	552
<b>Empleo interior en las ramas de industria, comercio y servicios</b>	<b>17.948</b>
<b>% de empleo en empresas artesanas sobre empleo interior</b>	<b>12,7%</b>

FUENTE: DECS, base de données FREE; Comptes de la Nation, champ ICS, non compris agriculture, locations immobilières, finances et assurances, administrations

Lanpostuei dagokienez, Frantziako lanpostuen % 12,7k (3.4 taula) artisau-izaera du eta eskulangintzak balio erantsi gordinari egiten dion ekarpena % 7,2koa da, betiere, Frantziako eskulangintzaren guztizkoa kontuan hartuta, eta ez eskulangintza artistikoa soilik, Espainiako datuetan bezala.

### 3.4.1.2. Italiaren adibidea

Italiaren kasuan, egoera konplexuagoa da: artisau-entresak 870 jarduera-motatan banatzen dira, fabrikazioaren sektoretik zerbitzuetaraino, nekazaritza eta eraikuntzatik pasatuz.

Italiako eskulangintza-jarduerak zaharrak zein modernoak dira: iraganeko historia eta kulturarekin lot daitezke, eta, bestetik, berritzaileak izan daitezke, etorkizuneko proiektioarekin.

Besteak beste, honako hauek hartzen dira eskulangiletzat: arte-lanen berritzaileak, urregina, jostuna, gozogilea, ile-apaintzailea, estetizista, software-programen sortzailea, eraikitzailea eta taxi-gidaria.

## 3.5 taula. ARTISAU-ENTRESEN BANAKETA SEKTOREKA (1999)

**Tabla 3.5. DISTRIBUCIÓN DE LAS EMPRESAS ARTESANAS POR SECTORES (1999)**

Secciones y divisiones de actividad	Nº empresas	%
A Agricultura, caza y silvicultura	13.004	0,94
B Pesca, piscicultura y servicios conexos	296	0,02
C Extracción de minerales	1.463	0,11
D Actividades manufactureras	444.965	32,19
DA15 Industria alimentaria y de la bebida	59.376	4,30
DB17 Industria textil	24.857	1,80
...		
DD20 Industria de la madera, excluidos los muebles	49.864	3,61
DN36 Fabricación de muebles y otra industria manufacturera	50.932	3,68
E Producción y distrib. Energía eléctrica, gas y agua	237	0,02
F Construcción	416.543	30,14
G Reparación de bienes personales y para la casa	150.872	10,92
H Albergues y restaurantes	9.406	0,68
I Transportes, revistas y comunicaciones	124.919	9,04
J Intermediación monetaria y financiera	275	0,02
K Actividad inmobiliaria	62.471	4,52
M Instrucción	1.799	0,13
N Sanidad y otros servicios sociales	1.515	0,11
O Otros servicios públicos, sociales y personales	147.283	10,66
P Servicio doméstico	48	0,00
Nc Empresas no clasificadas	7.053	0,51
<b>TOTAL</b>	<b>1.382.149</b>	<b>100,00</b>

FUENTE: Confartigianato y elaboración propia

Egia esan, Frantzia gertatzen den bezala, fabrikazioan aritzen diren enpresen datuak soilik hartzen baditugu kontuan, esan dezakegu Italian 444.965 artisau-enpresa daudela, eta horri elikagaigintzako enpresak kendu beharko genizkioke (59.376), Espainiako eskulangintza artistikoaren definizioan sartzen ez diren beste enpresa batzuen artean.

Italiako ekonomia osoarekiko eskulangintzaren balio erantsiari dagokionez, 1996an % 13,6ko ekarpena egin zuen, herrialdeko esportazioetan % 18koa eta hiru milioi pertsoneri eman zien lana, hau da, sektore pribatuan lanean ari ziren italiarren bostenari (Confartigianato-ren datuen arabera).

### **3.4.2. Espainiako artisau-enpresa: ikuspegi orokorra eta sektorearen ikuspegia**

Zailtasun estatistikoak, berriro ere, Espainiako datu globaletan agertzen dira, izan ere, lehen ikusi den bezala, eskulangintzaren kontzeptuan desberdintasun handiak daude. Ondorioz, baita autonomia-erkidegoetako Ofizio eta Eskulangintza Katalogoetan ere.

Eskulangintzan oro har onartuta dauden azpisektoreak kontuan hartzen baditugu, 2000. urtean artisau-tailer gehien zituen autonomia-erkidegoa Andaluzia zen, ondoren, Madril, Katalunia, Gaztela eta Leon, Gaztela-Mantxa eta Valentzia. Autonomia horietan 1.000. tailerretatik gora zeuden erroldatuta, Espainiako Eskulangintzaren Sustapenerako Fundazioak emandako datuen arabera.

Datu horietan komeni da gogoratzea elikagaigintza ez dela sartzen, autonomia-erkidego batzuetan eskulangintza gisa onartu arren, baina datu orokorra ez denez, ez da kontuan hartzen. Gauza bera gertatzen da zerbitzuekin. Beraz, ondorengo datu estatistikoetan, eskulangintza artistikoko tailerrak bakarrik hartzen dira kontuan.

Horrenbestez, 2.000. urtean 15.282 artisau-tailer zeuden. Horietatik % 16,87 (hau da, 2.578) Andaluzian zeuden, % 14,08 (2.151 tailer) Madrilen, % 13,07 (1.997) Katalunian eta % 10,69 (1.633) Gaztela eta Leonen (3.6 taula).

Aitzitik, eskulangintzaren ehuneko baxuena duten autonomia-erkidegoak Errioxa (80 artisau-tailer soilik) eta Kantabria (133 tailer) dira.

### 3.6 taula. ESPAINIAKO ESKULANGINTZA-SEKTOREAREN ALDAGAI NAGUSIAK 2000

**Tabla 3.6. VARIABLES FUNDAMENTALES DEL SECTOR ARTESANO EN ESPAÑA 2000**

COMUNIDAD AUTÓNOMA	Nº TALLERES	%	Nº TRABAJADORES	%	VALOR DE PRODUCCIÓN ANUAL (mill. de ptas.)	%
ANDALUCÍA	2.578	16,87	10.025	22,73	31.879,50	21,11
ARAGÓN	618	4,04	1.389	3,15	4.095,55	2,71
ASTURIAS	349	2,28	745	1,69	2.458,50	1,63
BALEARS (ILLES)	416	2,72	1.290	2,83	4.112,50	2,72
CANARIAS	213	1,39	795	1,80	2.416,80	1,60
CANTABRIA	133	0,87	358	0,81	1.002,4	0,66
CASTILLA-LA MANCHA	1.350	8,83	4.025	9,12	16.140,25	10,69
CASTILLA Y LEÓN	1.633	10,69	2.690	6,10	8.204,50	5,43
CATALUÑA	1.997	13,07	5.530	12,54	19.963,30	13,22
C. VALENCIANA	1.265	8,28	5.750	13,04	22.942,50	15,19
EXTREMADURA	572	3,74	864	1,96	2.764,80	1,83
GALICIA	780	5,10	1.649	3,74	5.194,35	3,44
MADRID	2.151	14,08	6.125	13,89	19.538,75	12,94
MURCIA	431	2,82	1.005	2,28	3.226,05	2,14
NAVARRA	226	1,48	865	1,96	3.892,50	2,58
PAÍS VASCO	490	3,21	780	1,77	2.466,60	1,63
LA RIOJA	80	0,52	265	0,60	728,75	0,48
<b>TOTAL</b>	<b>15.282</b>	<b>100</b>	<b>44.110</b>	<b>100</b>	<b>150.994,60</b>	<b>100,00</b>

FUENTE: Fundación Española Artesanía

Dena den, 3.6 taulan ikus daitekeenez, eskulangile-kopurua (ehunekotan) artisau-tailerren ehunekoa baino altuagoa da Andaluzian eta Valentzian. Aldiz, Gaztela eta Leonen, Extremaduran, Euskadin eta Galizian langileen proportzioa artisau-tailerrena baino txikiagoa da Beste autonomia-erkidegoetan, berriz, antzeko maila mantentzen da bi alderdi horien artean. Hasiara batean, datu horiek ikusita, pentsa daiteke tailerrak oso homogeneoak direla tamainari dagokionez, Andaluzia eta Valentzian izan ezik, non dirudienez tailerrak gainerako erkidegoetan baino handiagoak baitira.

Eskulanaren produkzioaren balioari dagokionez, 2000. urtean, guztira 150.994,60 milioi pezetako etekina lortu zen. Hor, berriro ere, Andaluzia, Valentzia, Katalunia, Madril eta Gaztela-Mantxa azpimarratu behar dira, produkzioan izan zuten parte-hartzeagatik. Bestalde, Gaztela eta Leonen proportzio eskasak (produkzio-balioaren % 5,43) harridura sortzen du, lurralde horretan dauden artisau-tailerren kopurua kontuan hartzen badugu.

3.7 taula. ESPAINIAKO ARTISAU-ENPRESEN ETA -TAILERREN KOPURUA 2000. URTEAN

**Tabla 3.7. NÚMERO DE EMPRESAS Y TALLERES ARTESANOS EN ESPAÑA. AÑO 2000**

COMUNIDADES AUTÓNOMAS	TOTAL EMPRESAS	TALLERES ARTESANOS	% TALLERES/ TOTAL EMPRESAS
ANDALUCÍA	376.646	2.578	0,7
ARAGÓN	75.803	618	0,8
ASTURIAS	63.133	349	0,6
BALEARS (ILLES)	69.574	416	0,6
CANARIAS	105.232	213	0,2
CANTABRIA	32.449	133	0,4
CASTILLA-LA MANCHA	99.423	1.350	1,4
CASTILLA Y LEÓN	148.440	1.633	1,1
CATALUÑA	492.546	1.997	0,4
C. VALENCIANA	276.032	1.265	0,5
EXTREMADURA	48.305	572	1,2
GALICIA	166.072	780	0,5
MADRID	365.083	2.151	0,6
MURCIA	68.131	431	0,6
NAVARRA	32.818	226	0,7
PAIS VASCO	150.163	490	0,3
LA RIOJA	18.716	80	0,4
<b>TOTAL</b>	<b>2.595.392</b>	<b>15.282</b>	<b>0,6</b>

FUENTE: DIRCE (INE) y Fundación Española Artesanía

2000. urtean Espainian zeuden artisa-tailerren kopurua enpresen guztizko kopuruarekin konparatzen badugu (3.7 taula), artisa-enpresen proportzio orokor baxua nabarmentzen da. Gaztela-Mantxak, Extremadurak eta Gaztela eta Leonek bakarrik gaintitzen dute % 1 (zehazki, Gaztela-Mantxako enpresen % 1,4 artisa-enpresak dira, Extremaduran % 1,2 eta Gaztela eta Leonen % 1,1). Kanariak Uharteetan, berriz, % 0,2 bakarrik dira artisa-enpresak. Estatu osoan, enpresen guztizkoaren % 0,6 dira artisa-tailerak.

1990 eta 2000 bitartean tailerren kopuruan eman den aldaketari dagokionez (3.8 taula), termino erlatiboetan, Extremadura (% 44,1eko hazkundera), Gaztela-Mantxa (% 41,5), Asturias (% 40,2) eta Gaztela eta Leonen (% 37,0) hazkundera azpimarratu behar da. Termino absolutuetan, Gaztela eta Leon eta Gaztela-Mantxa dira azpimarragarrienak: lehenengoan 441 tailer berri sortu ziren eta bigarreanean 396.

**3.8 taula. ARTISAU-TAILER KOPURUAREN ALDAKETA AUTONOMIA-ERKIDEGOAREN ARABERA 1990-2000**

**Tabla 3.8. VARIACIÓN DEL Nº TALLERES ARTESANOS POR CCAA 1990-2000**

COMUNIDAD AUTÓNOMA	Nº de talleres		Variación 00-90	
	1990	2000	Absoluta	Relativa
ANDALUCÍA	2.630	2.578	-52	-2,0
ARAGÓN	509	618	109	21,4
ASTURIAS	249	349	100	40,2
BALEARIS (ILLES)	306	416	110	35,9
CANARIAS	499	213	-286	-57,3
CANTABRIA	108	133	25	23,1
CASTILLA-LA MANCHA	954	1.350	396	41,5
CASTILLA Y LEÓN	1.192	1.633	441	37,0
CATALUÑA	1.769	1.997	228	12,9
COMUNIDAD VALENCIANA	1.500	1.265	-235	-15,7
EXTREMADURA	397	572	175	44,1
GALICIA	951	780	-171	-18,0
MADRID	1.858	2.151	293	15,8
MURCIA	378	431	53	14,0
NAVARRA	297	226	-71	-23,9
PAIS VASCO	696	490	-206	-29,6
LA RIOJA	97	80	-17	-17,5
<b>TOTAL</b>	<b>14.390</b>	<b>15.282</b>	<b>892</b>	<b>6,2</b>

FUENTE: Elaboración propia a partir de *Fundación Española de Artesanía*

Aldaketa negatibo deigarrienak Kanariar Uharteetan (lehen 499 tailer, orain 213, % 57,3ko jaitsiera), Euskadin (% 29,6), Nafarroan (% 23,9), Errioxan (% -17,5) eta Valentzian (235 tailer gutxiago, hau da, % 15,7ko jaitsiera) gertatu dira.

Eskulangintzan sartzen diren hainbat azpisektoreei dagokienez, zurezko altzariak eta zeramika dira tailer gehien dituzten azpisektoreak (% 20,58 eta % 16,85ko parte-hartzea duten sektorean, hurrenez hurren).

Aldiz, jarduera gutxiagoko azpisektoreak musika-instrumentuak (% 1,67, hau da, 247 tailer soilik), landare-zuntza (% 2,48) eta beira (% 2,60) dira. Horiek guztira ez dira 500 tailerretara iristen estatu osoan, 3.9 taulan ikus daitekeenez.

3.9 taula. ESPAINIAKO ARTISAU-TAILERRAK AZPISEKTOREKA (1999)

**Tabla 3.9. TALLERES ARTESANOS EN ESPAÑA POR SUBSECTORES (1999)**

SUBSECTOR	Nº TALLERES	%
01. Muebles de madera	3.051	20,58
02. Objetos de madera	1.372	9,25
03. Fibras vegetales	367	2,48
04. Cerámica	2.498	16,85
05. Mármol, piedra y escayola	633	4,27
06. Vidrio	385	2,60
07. Metal	1.355	9,14
08. Piel y cuero	1.402	9,46
09. Textil	937	6,32
10. Joyería	1.407	9,49
11. Instrumentos musicales	247	1,67
12. Varios	1.173	7,91
<b>TOTAL</b>	<b>14.827</b>	<b>100</b>

FUENTE: Fundación Española Artesanía

Tailerren sektorekako banaketa konstante mantendu da gutxi gorabehera azken hamarkadan (3.10 taula). Azpimarratzekoa da, hala ere, landare-zuntzen azpisektorean aritzen diren tailer-kopuruaren jaitsiera (% 50,3): 1990ean, 738 tailer; 1999an, 367.

3.10 taula. ARTISAU-TAILER KOPURUAREN ALDAKETA AZPISEKTOREKA 90-99

**Tabla 3.10. VARIACIÓN Nº TALLERES ARTESANOS POR SUBSECTORES 90-99**

SUBSECTOR	Nº de talleres		Variación 99-90		Participación	
	1990	1999	Absoluta	Relativa	1990	1999
01. Muebles de madera	3.029	3.051	22	0,7	21,05	20,58
02. Objetos de madera	1.174	1.372	198	16,9	8,16	9,25
03. Fibras vegetales	738	367	-371	-50,3	5,13	2,48
04. Cerámica	2.565	2.498	-67	-2,6	17,82	16,85
05. Mármol, piedra y escayola	533	633	100	18,8	3,70	4,27
06. Vidrio	299	385	86	28,8	2,08	2,60
07. Metal	1.433	1.355	-78	-5,4	9,96	9,14
08. Piel y cuero	1.264	1.402	138	10,9	8,78	9,46
09. Textil	841	937	96	11,4	5,84	6,32
10. Joyería	1.361	1.407	46	3,4	9,46	9,49
11. Instrumentos musicales	210	247	37	17,6	1,46	1,67
12. Varios	933	1.173	240	25,7	6,48	7,91
<b>TOTAL</b>	<b>14.390</b>	<b>14.827</b>	<b>437</b>	<b>3,0</b>	<b>100,00</b>	<b>100,00</b>

FUENTE: Fundación Española Artesanía

Zurezko altzarien eta zeramikaren sektorean diharduten tailerren nagusitasuna nabarmena da eskualde gehienetan (3.11 taula), honako hauetan izan ezik:

- Asturias, tailer gehienek larrua eta zurezko objektuak lantzen dituzte;
- Kanariar Uharteak, ehungintza zeramikaren gainetik dago;
- Katalunia, bitxigintzako tailer gehiago daude zurezko altzarienak baino;
- Madril, han ere bitxigintzako tailerrak nagusitzen dira, baina zurezko altzariak egiten dituztenen atzetik daude;
- Murtzia, zeramika-tailerrak nagusitzen dira, baina ehungintzako tailerren proportzio garrantzitsua dauka eta
- Nafarroa, marmol-, harri- eta eskaiola-tailerren ehuneko altua duen erkidego bakarra da.

### 3.11 taula. ARTISAU-TAILERRAK AZPISEKTOREKA ETA AUTONOMIA-ERKIDEGOAREN ARABERA 1999

**Tabla 3.11. TALLERES ARTESANOS POR SUBSECTORES Y COMUNIDADES AUTÓNOMAS 1999**

SUBSECTOR	ANDALUCÍA		ARAGÓN		ASTURIAS		BALEARS		CANARIAS	
	Talleres	%	Talleres	%	Talleres	%	Talleres	%	Talleres	%
01. Muebles de madera	591	23,0	119	19,5	30	8,6	33	8,0	51	24,1
02. Objetos de madera	150	5,8	61	10,0	60	17,3	90	21,7	22	10,4
03. Fibras vegetales	58	2,3	11	1,8	3	0,9	6	1,4	8	3,8
04. Cerámica	463	18,0	107	17,5	50	14,4	78	18,8	35	16,5
05. Mármol, piedra y escayola	163	6,3	26	4,3	2	0,6	12	2,9	5	2,4
06. Vidrio	44	1,7	15	2,5	13	3,7	9	2,2	0	0,0
07. Metal	264	10,3	64	10,5	50	14,4	28	6,8	12	5,7
08. Piel y cuero	415	16,1	50	8,2	62	17,9	44	10,6	12	5,7
09. Textil	107	4,2	48	7,9	24	6,9	23	5,6	38	17,9
10. Joyería	165	6,4	41	6,7	20	5,8	50	12,1	6	2,8
11. Instrumentos musicales	39	1,5	10	1,6	8	2,3	5	1,2	12	5,7
12. Varios	115	4,5	59	9,7	25	7,2	36	8,7	11	5,2
<b>TOTAL</b>	<b>2.574</b>	<b>100,0</b>	<b>611</b>	<b>100,0</b>	<b>347</b>	<b>100,0</b>	<b>414</b>	<b>100,0</b>	<b>212</b>	<b>100,0</b>

SUBSECTOR	CANTABRIA		C-LA MANCHA		C Y LEÓN		CATALUÑA		C. VALENCIANA	
	Talleres	%	Talleres	%	Talleres	%	Talleres	%	Talleres	%
01. Muebles de madera	37	28,0	349	26,1	306	18,8	257	13,0	198	15,7
02. Objetos de madera	18	13,6	73	5,5	112	6,9	214	10,8	192	15,3
03. Fibras vegetales	0	0,0	28	2,1	95	5,8	10	0,5	79	6,3
04. Cerámica	34	25,8	249	18,6	240	14,8	427	21,6	208	16,5
05. Mármol, piedra y escayola	1	0,8	52	3,9	85	5,2	100	5,0	14	1,1
06. Vidrio	0	0,0	28	2,1	22	1,4	112	5,7	33	2,6
07. Metal	11	8,3	186	13,9	150	9,2	205	10,3	64	5,1
08. Piel y cuero	11	8,3	81	6,0	156	9,6	128	6,5	96	7,6
09. Textil	3	2,3	126	9,4	126	7,8	82	4,1	50	4,0
10. Joyería	9	6,8	65	4,9	157	9,7	280	14,1	108	8,6
11. Instrumentos musicales	3	2,3	14	1,0	25	1,5	14	0,7	20	1,6
12. Varios	5	3,8	88	6,6	151	9,3	152	7,7	197	15,6
<b>TOTAL</b>	<b>132</b>	<b>100,0</b>	<b>1.339</b>	<b>100,0</b>	<b>1.625</b>	<b>100,0</b>	<b>1.981</b>	<b>100,0</b>	<b>1.259</b>	<b>100,0</b>



SUBSECTOR	EXTREMADURA		GALICIA		MADRID		MURCIA		NAVARRA	
	Talleres	%	Talleres	%	Talleres	%	Talleres	%	Talleres	%
01. Muebles de madera	64	26,2	72	9,2	762	36,2	36	8,6	61	27,1
02. Objetos de madera	10	4,1	104	13,3	109	5,2	46	10,9	29	12,9
03. Fibras vegetales	12	4,9	2	0,3	21	1,0	7	1,7	7	3,1
04. Cerámica	65	26,6	176	22,6	156	7,4	108	25,7	18	8,0
05. Mármol, piedra y escayola	13	5,3	41	5,3	44	2,1	11	2,6	46	20,4
06. Vidrio	0	0,0	13	1,7	66	3,1	7	1,7	5	2,2
07. Metal	27	11,1	42	5,4	147	7,0	17	4,0	18	8,0
08. Piel y cuero	20	8,2	56	7,2	160	7,6	40	9,5	15	6,7
09. Textil	20	8,2	78	10,0	104	4,9	69	16,4	4	1,8
10. Joyería	8	3,3	87	11,2	338	16,0	25	5,9	10	4,4
11. Instrumentos musicales	1	0,4	42	5,4	43	2,0	2	0,5	2	0,9
12. Varios	4	1,6	67	8,6	156	7,4	53	12,6	10	4,4
<b>TOTAL</b>	<b>244</b>	<b>100,0</b>	<b>789</b>	<b>100,0</b>	<b>2.106</b>	<b>100,0</b>	<b>421</b>	<b>100,0</b>	<b>225</b>	<b>100,0</b>

SUBSECTOR	PAÍS VASCO		LA RIOJA	
	Talleres	%	Talleres	%
01. Muebles de madera	80	16,8	14	17,5
02. Objetos de madera	62	13,0	11	13,8
03. Fibras vegetales	18	3,8	2	2,5
04. Cerámica	65	13,6	16	20,0
05. Mármol, piedra y escayola	16	3,4	2	2,5
06. Vidrio	16	3,4	3	3,8
07. Metal	59	12,4	13	16,3
08. Piel y cuero	48	10,1	8	10,0
09. Textil	32	6,7	3	3,8
10. Joyería	33	6,9	5	6,3
11. Instrumentos musicales	7	1,5	0	0,0
12. Varios	41	8,6	3	3,8
<b>TOTAL</b>	<b>477</b>	<b>100,0</b>	<b>80</b>	<b>100,0</b>

FUENTE: Fundación Española Artesanía

Andaluzian aldaketa esanguratsua gertatu da eskulangintzaren egituran. Izan ere, 1990ean tailer gehien zituen jarduera bitxigintza zen (% 19,5) eta 1999an, bitxigintzako tailerrek eskualdeko artisau-tailerren % 6,4 soilik hartzen zuten. Katalunian, berriz, alderantziz gertatu da. Han ere bitxigintza da azpisektorerik dinamikoena, baina 1990ean 169 tailer zituen eta 1999an 280.

Kantabriaren zeramikaren azpisektorea da nagusi, tailer-kopurua bikoiztu egin baita. Autonomia-erkidegoko artisau-tailerren % 11,1 izatetik % 25,8 izatera pasatzea lortu du.

Valentzian landare-zuntzen jardueran jaitziera esanguratsua gertatu da. 1990ean 208 tailer zeuden eta 1999an 79 besterik ez, ondorioz, artisau-tailerren % 13,9 izatetik % 6,3 izatera pasatu zen. Murtzian, berriz, jarduera nagusia ehungintza da: 1990ean 31 tailer zeuden eta 1999an 69.

Gainerako autonomia-erkidegoetan ez da aldaketa handirik egon eskulangintzaren egiturari dagokionez. Oro har, zurezko altzarien eta objektuen azpisektorea konpentsatu da.

Eskulangintzak eskualdeko ekonomia bakoitzean duen indarraren arabera, Gaztela-Mantxa azpimarratu behar da (eskulangintza-produkzioaren balioak eskualdeko BPGren % 0,49 hartzen du), ondoren, tarte batekin, Valentzia (% 0,26), Andaluzia (% 0,25) eta Nafarroa (% 0,24) daude.

### 3.12 taula. ESKULANGINTZA-SEKTOREAREN EKARPENA BPGri AUTONOMIA-ERKIDEGOAREN ARABERA.

**Tabla 3.12. APORTACIÓN DEL SECTOR ARTESANO AL PIB POR COMUNIDADES AUTÓNOMAS**

COMUNIDAD AUTÓNOMA	VALOR DE PRODUCCIÓN ANUAL (mill. de ptas.)	%	PIB <sub>psn</sub> <sup>1</sup> (mill. de ptas.)	% valor prod. artesana/ PIB
ANDALUCÍA	31.879,50	21,11	12.090.181	0,26
ARAGÓN	4.095,55	2,71	3.017.648	0,14
ASTURIAS	2.458,50	1,63	2.235.948	0,11
BALEARS (ILLES)	4.112,50	2,72	2.158.264	0,19
CANARIAS	2.416,80	1,60	3.599.880	0,07
CANTABRIA	1.002,40	0,66	1.174.225	0,09
CASTILLA-LA MANCHA	16.140,25	10,69	3.312.598	0,49
CASTILLA Y LEÓN	8.204,50	5,43	5.379.305	0,15
CATALUÑA	19.963,30	13,22	17.700.892	0,11
COMUNIDAD VALENCIANA	22.942,50	15,19	8.856.409	0,26
EXTREMADURA	2.764,80	1,83	1.581.048	0,17
GALICIA	5.194,35	3,41	5.085.379	0,10
MADRID	19.538,75	12,91	16.124.700	0,12
MURCIA	3.226,05	2,14	2.147.902	0,15
NAVARRA	3.892,50	2,58	1.630.890	0,24
PAÍS VASCO	2.466,60	1,63	5.915.933	0,04
LA RIOJA	728,75	0,48	702.978	0,10
<b>TOTAL</b>	<b>150.994,60</b>	<b>100,00</b>	<b>93.068.288</b>	<b>0,16</b>

<sup>1</sup> PIB<sub>psn</sub> para el año 1999 (1ª estimación)

FUENTE: Fundación Española Artesanía, INE y elaboración propia

Oro har, eskulangintza-sektorearen produkzioaren balioak herrialde osoko Barne Produktu Gordinaren 0,16 besterik ez du hartzen, eta, gainera, erkidego batzuen ekarpen ñimiñoa azpimarratu behar da, adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoa (0,04) edo Balear Uharteak (0,07).

Eskulangintza-sektorearen produkzioaren balioari dagokionez BPGean pisu gehien – biztanleria aktiboa aintzat hartuta– duten autonomia-erkidegoak dira eskulangile-proporzio handiena duten eskualdeak: Gaztela-Mantxa, Nafarroa, Andaluzia eta Valentzia; % 0,60, % 0,38, % 0,35 eta % 0,33, hurrenez hurren. Horiei Balear Uharteak gehitu behar zaizkie, non biztanleria aktiboaren % 0,37 eskulangileak baitira, nahiz eta eskualde osoan produkzioaren balioak ehuneko oso baxua izan.

**3.13 taula. ESKULANGINTZAREN PARTE-HARTZEA BIZTANLERIA AKTIBOAN AUTONOMIA-ERKIDEGOAREN ARABERA**

**Tabla 3.13. PARTICIPACIÓN ARTESANA EN LA POBLACIÓN ACTIVA POR CCAA**

COMUNIDAD AUTÓNOMA	Nº TRABAJADORES	%	POBLACIÓN ACTIVA (en miles)	% trabajadores artesanos/ pob. activa
ANDALUCÍA	10.025	22,73	2.882	0,35
ARAGÓN	1.389	3,15	493	0,28
ASTURIAS	745	1,69	402	0,19
BALEARS (ILLES)	1.250	2,83	340	0,37
CANARIAS	795	1,80	710	0,11
CANTABRIA	358	0,81	202	0,18
CASTILLA-LA MANCHA	4.025	9,12	673	0,60
CASTILLA Y LEÓN	2.690	6,10	995	0,27
CATALUÑA	5.530	12,54	2.704	0,20
COMUNIDAD VALENCIANA	5.750	13,04	1.752	0,33
EXTREMADURA	864	1,96	440	0,20
GALDIA	1.649	3,74	1.156	0,14
MADRID	6.125	13,89	2.264	0,27
MURCIA	1.005	2,28	474	0,21
NAVARRA	865	1,96	227	0,38
PAIS VASCO	780	1,77	918	0,08
LA RIOJA	265	0,60	108	0,25
<b>TOTAL</b>	<b>44.110</b>	<b>100</b>	<b>16.795</b>	<b>0,26</b>

FUENTE: Fundación Española Artesanía, EPA 2º Trimestre de 2000 (INE) y elaboración propia

**Eskulangintzari buruzko txostena**

**3. Oinarri teknikoak eta ekonomikoak / 36**

Euskal Autonomia Erkidegoan du garrantzi gutxien eskulangintza-sektoreak biztanleria aktiboan (% 0,08), eta Espainian osoan % 0,26 da.

### 3.5. Ondorioak

Aurreko datu horietatik guztietatik (Frantziako eta Italiako kasuen adibide garbiekin) ondorio hau atera daiteke: eskulangintza-sektorearen garrantziari dagokionez, Europako herrialdeen artean, itxura batean, tarte handia egon arren, estatistikak zehatzago aztertuta, ikusten da desberdintasuna gehien bat herrialde bakoitzaren definizioan dagoela.

Konparazio homogeneoa egiteko, herrialde bakoitza espezifikoki aztertu eta eskulangintza artistikoari buruzko datuak atera beharko lirateke, eta hartara, eskulangintza-sektoreak ekonomian duen benetako ekarpena zein den jakingo genuke.

Esku artean ditugun estatistiken arabera, azpimarratu behar da Frantzian eta Italian eskulangintza-sektoreak gehiegizko balioa duela eta Espainian, berriz, gutxietsi egiten dela.

**OHARRA:** informazio hori interesgarria iruditu zait aztertzeko eta, hala badagokio, zuzentzeko. Euskal eskulangintza-sektorea bere ingurunearekin loturik dago ezinbestean.

## HAUSNARKETARAKO OHARRAK

**Euskal Herriko eskulangintzak zein erronkei egin behar die aurre?**

### 1- ARTISAU-ENPRESA ETA HORREN BERRIKUNTZA

Artisau-enpresa mugitzen den merkatuko errealitatearen mende dago. Beste enpresetan bezala, eskulangintzan ere zeregin-multzo oso bat egin, diseinatu edo diseinura egokitu, lehengaiak lortu, objektua egin eta saldu egin behar da.

Artisau-enpresaren ezaugarriak dira **tamaina** txikia, batetik, eta eskulangilea eta egindako produktuaren arteko **harreman emozionala**, bestetik.

Enpresa oso txikiak direnez, kasu gehienetan pertsona bat edo bi, eskulangileak dena egin behar du: ikertu, berritu, behar berrietara egokitu, hornitzailearekin eta bezeroarekin harremanak izan... Horrez gain, administrazio-kudeaketa ona eraman behar da kontuak ondo irteteko.

Baina, egia esan, eskulangileak produktuarekin duen harreman bereziaren ondorioz, ahalegin eta lehenetsun gehiena produkzio-prozesuari ematen dio, beste lan batzuk bigarren mailan utziz, nahiz eta enpresak behar bezala funtzionatzeko garrantzitsuak izan.

Kudeaketa global ona egiteko, erremintak eduki behar dira:

- **Merkatuen ikerketa eguneratuak**
- **Merkaturatze-sistema berriak ikustea**
- **Lehendik dauden merkaturatze-bideak arautzea eta orekatzea kalitateko eta etorkizuneko irizpideekin: erakustazokak, sareko dendak...**

## **2- ARTISAU-ENPRESA ETA ERREGULAZIO ADMINISTRATIBO KOORDINATUA**

Badirudi beharrezkoa dela eskulangintzaren dinamikan geldialdi bat egitea une honetan –sektorean hainbat urtez jardun ondoren– nola gauden jakiteko.

Euskal Autonomia Erkidegoan, foru-aldundiek beren araudia dute. Sail desberdinak arduratzen dira eskulangintzaz eta ikuskera ezberdinak dituzte lanbide horiek iraganean izan direnari eta etorkizunean izan behar dutenari dagokionez.

Ez dugu ahaztu behar, hala ere, eskulangintzako jarduerak izaera kulturala izateaz gain eragile ekonomikoak ere badirela. Irizpideak bateratzea komeniko litzateke **SEKTOREA SUSTAPEN-PROGRAMA EGOKIEKIN BULTZATZEKO**.

**Merkaturatzea aztertzea: salmenta zuzena. Produktua merkatuan. Banatze-kateak.**

## **3- ESKULANGINTZA BALIO OSAGARRI GISA GARAPEN KULTURAL ETA TURISTIKOAN**

Ezbairik gabe jabetzen gara eskulangintzak –alderdi ludiko eta kulturaletik– sektore turistikoan KALITATE osagarri gisa duen indarrak.

Gure herriko turismoak gure kulturaren elementu bereizgarriak eskatzen ditu, eta arlo horretan eskulangintza sustatzea, AZTERTUTAKO eta AURREZ DISEINATUTAKO eskaintza batekin, kontuan hartu beharreko balioa da zalantzarik gabe.

**Eskualdeetako azterketak egin behar dira.**

#### **4-JARRAIPENA DUTEN LANBIDEAK**

Denok dakigu eskulangintzako lanbide batzuk amaitu egingo direla belaunaldien erreleborik ez dagoelako.

Azterketa bat egin beharko litzateke jakiteko zein lanbide dauden egoera horretan, eta duten garrantzia kontuan harturik eta eskualdeka, Ekintza-plan bat egin beharko litzateke jakintza-alor horretako eskulangile berriak prestatzeko.

**Horrek esan nahi du lan horien ikaskuntza sustatu behar dela.**

DATU HORIETAN OINARRITUZ, AZTERTZEKO ETA HAUSNARTZEKO BIDE INTERESGARRIA DUGU, ETA BIDE HORRETAN, TALDE AHOLKU-EMAILEAK, ZALANTZARIK GABE, EKARPEN BERRI ETA INTERESGARRIAK EGINGO DITU.